

# Baserritarra eta txerrena

## Asier Legarreta (Txerren)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari leiketa. lagarren saria

**T**xikerra nintzela, aittitte eta amomamaren etxean bizi nintzan. Udabarrarian eta udagoiengan bearra egoan eta ez genduen astirik izaten kontuak kontetan ibilteko. Baina negua elduten zanean, bekosuaren ondoan izaten gintzezan kontu kontari, saratsaren mukurrak sutan egozala suteko berotasunean.

Neguko arratsalde ilun eta euritsu batean, aittittek olan kontatu eustan ipuin au:

“Mungia aldeko baserri baten bizi zan gizon aitatu bat. Baserritar erne eta azkarra benetan! Asko dira aren egitsariak. Ona emen bat:

Lugintzan arratsalde bateko zeregiñak bete ondoren abiatu zan etxerantz: baina, bat-batean agertu jakon solo-erdian ikatz-bizizko metatxo bat, eta metatxoaren gañean, patxadan jesarrita, txerren txiki ta baltz bat. Arritu zan mungiarra.

— Zer dok ori! Txerrena txingar gañean! Ikusi bear dogu ba, ea zer dion.



Ta beldur barik urreraturik, olan diotso:

— Eup! Bagagoz?

— Bai, eta ederto egon be metagañean jesarrita—erantzuten deutso txerrenak.

— Altxor domutsuren bat izango dok txingar-metatxo orrrek, jakina?

— Domutsua! Baita benetan. Ik iñoiz ikusi dokazen zillar ta urre guztiak baiño ogasun geiago dekok txingar-meta onek.

— Baleike!...Ba, altxor ori nirea dok, neure soloan aurkituten dalako.

— Irea izango dok solo onetako lurra-  
ren urte biko etekin erdi-  
ja emoten badoztak.

— Ogasun bearrian aurkituten al aiz alan da ze?

— Ez: Bajeukoak dirua pranko, baina lur emoitzak atsegin jatazak. Ixil-alditxoan izan eban baserritar-  
rak: eta buruan azka egin ostean olan erantzun eutson txerrenari:

— Ondo dagok: baina, lur-etekiña bannadu bear dogunian asarrerik izan ez dagigun, orantxe bertan egingo dogu banaketea: Iretzat lur gañean aurkituten dana, eta niretzat lurpekoa.



Ontzat artu eban txerrenak baserritarren erabagia, ta joan zan esandako sasoi arte agurtuaz.

Baserritarak, poliki oldoztu ostean, erein ebazan azenarioak.

Eldu zan izendatutako garaia, ta agertu jakon baserritar txerren baltza, eta esan eutson:

— Tira, non dira nire urte onetako etekiñak?

— Orra or, solo guztia bete bete— erantzun eutson baserritarak besoak zabalduaz.



Baina txerrenak etzeban aurkitu lugañean orri orizka ta simelak baiño: ta baserritarrak poz eta atseginez atara ebazan lurpetik azenario guri-guriak.

— Zoriona izan dot aurten—esan eutson txerrenak—baina ez dot izango barriro. Datorren urtean lur-gañekoak izango dozak iretzat, eta lurpekoak niretzat.

— Ondo jauk—erantzun eutson baserritarrak.

— Baina, texerrena joan zanean, azenario orde z garia erein eban. Eta biltzeko garaia eldu zanean, ebagi ondo-ondotik eta eraman ebazan etxera galburu ta lasto guztiak.

Agertu zan txerrena, bere lur etekiña eroateko ustez, baina etzeben aurkitu so-loan ezertxo be sustraiak baiño, eta asarratuta eta minduta bota eban bere burua aitz-tontor batetik bera.

Baserritarrak parre-egiñaz olan esan eutson:

— A zer iruzurra eroan dauen! Ori egin bear jake luki maltzur orreei.

Zein lasai eta zoriontsu beraganandu eban txerrenak itzitako altxorra”.

Aittitten kontu onek bizitzan arlo askotarako balio izan deust. Ez dot iñoz aztuko aittittek kontatutakoa. Beti izango dot eta gogoan. Eguneroko bizitzan aurkituten diren zailtasunak eta lagun berekoiak ekiditen lagundu deustan irakaspena neugaz daroat biotz barrenean.

